

### III. ERANSKINA

#### DATUEN LAGAPENARI ETA TRATAMENDUARI BURUZKO ADIERAZPENA, SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN (STEP) BARRUKO JARDUKETAK EGITEARI DAGOKIONEZ

..... jauna/andrea (NAN zk.: .....)  
..... entitateko (IFZ: .....; zerga-  
egoitza: .....) ordezkarria da  
(zeregin hauek betetzen ditu: .....), eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen  
onuradun den heinean, «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak»  
deritzon 23. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketan garapenean, adierazten  
du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa  
ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241  
Erregelamenduaren 22. artikulua apartatu hauek:

1.– 2. apartatuaren d) letra: «Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-  
proiektuak egitera bideratutako neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko, datu  
hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoa, eta  
datu-base bakarrean:

i. Funtsen azken hartzailearen izena;

ii. Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailerak bada  
Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorrita;

iii. Funtsen hartzailearen edo kontratataren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak,  
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan  
definitutakoaren arabera (26);

iv. Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako  
neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Mekanismoaren  
esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa zehaztu behar da».

2.– 3. apartatua: «Artikulu honen 2. apartatuaren d) letran aipatutako datu pertsonalak Batasuneko  
estatuak eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketa onartzeko auditoriaren eta 15.  
artikulua 2. apartatua eta 23. artikulua 1. apartatua aipatutako akordioaren aplikazioarekin lotutako  
funtsen erabilerarekin zerikusia duten kontrol-prozeduren ondorioetarako, eta auditoriak edo prozedurek  
dirauten denboran. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren 319. artikulua  
bat etorrita, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan  
jasotako finantzei eta kontu-emateari buruzko informazio integratuaren esparruan, eta, zehazki, bereizita,  
kudeaketari eta etekinari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoa dela bide, adierazten du baimena ematen duela datuak lagatzeko eta  
tratatzeko, aipatutako artikuluetan berariaz jasotako xedeetarako.

....., 2022ko .....aren .....a.

Sin. ....

Kargua: .....